



12. AKTA

TOKIKO GOBERNU BATZARRA, 2007ko urriaren 11n izandakoa.

TOKIA: Pasaiako hirian eta bertako udaletxean.

DATA: Bi mila eta zazpiko urriaren hamaikan.

BERTARATU DIRA:

Ander Poza Olabide j.
Iñaki Garmendia Agirregabiria j.
Eduarne Baztarrika Bilbao a.

Burua:

Maidier Ziganda Población, alkatea.

Lehenengo deialdian, Maidier Ziganda Población alkate andrea buru dutela eta Joseba Belaustegi Cuesta udal idazkaria bertan dela, goian aipatutako zinegotziak bildu dira, Tokiko Gobernu Batzarraren bilkura egiteko. Obdu Lorenzo de Dios andreak eta Alvaro Rincón Rivera jaunak ez dute ezin etorria justifikatu.

Tokiko Gobernu Batzarra legez osatzeko behar hainbat partaide etorri dela egiaztatu ondoren, lehendakariak, 14:00etan bilkurari hasiera eman dio, eta gai-zerrendako puntu hauek aztertzeari ekin diote:

1.- Aurreko batzarreko akta irakurri eta onartzea: 11. akta, 07-9-14koa.

Bertaratuek goiburuan aipatutako akta aztertu dute, eta Tokiko Gobernu Batzarrak onartzea erabaki du, bertaratutako zinegotzi guztien adostasunez, eta akta hori dagokion Akta Liburuan jasotzea, gaztelerako testuan honako zuzenketa hau egin ondoren:

9. puntua

Ondokoa dioen tokian: “Araneder 2.06.01 (SL) Egikaritze Unitatea Birzatitzea”

Ondokoa behar du: “Araneder 2.06.01 (S1) Egikaritze Unitatea Birzatitzea”



2.- Kontu eta fakturen zerrenda: 10/07.

Gobernu Batzordeak, bertaratu diren zinegotzi guztien adostasunez, honako kontu eta fakturak onartzea erabaki du:

10/07

Zenbatekoa: BERREHUN ETA ZORTZI MILA HIRUREHUN ETA HIRUROGEITA HAMABI EURO ETA BERROGEITA BAT XENTIMO (208.372,41 euro).

3.- J.J. Otaegi plazako Gaztelekua egokitzeko obraren 2. ziurtagiria.

Gobernu Batzordeak, bertaratu diren zinegotzi guztien adostasunez, honako ziurtagiria onartzea erabaki du:

2. zenbakia.

Obra: "J.J. Otaegi plazako Gaztelekua egokitzea"

Enpresa kontratista: AMUITZ BERRIKUNTZAK, S.L.U.

Obra-zuzendaria: José J. Michelena

Zenbatekoa: HAMAR MILA HIRUREHUN ETA HOGEITA ZORTZI EURO ETA HIRUROGEITA HAMAIIKA XENTIMO).

Honako xedatutik ordainduko da: indarrean dagoen aurrekontuko X-1771/06.

4.- 10. aktako 6. puntuan akatsak zuzentzea (euskarazko testuan).

2007ko azaroaren 16ko Tokio Gobernu Batzarrean hartutako erabakian akats materiala aurkitu dugu, zehazki Itsasmendi eman zaion diru-laguntzari buruzko 6. puntuaren euskarazko testuan. Horiek horrela, eta azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 105.2. artikulua araberan, Tokio Gobernu Batzarrak, bertaratu diren zinegotzi guztien adostasunez, honako aldaketa hau egitea erabaki du:

Ondokoa dioen tokian:

LEHENA.- S.C.R.D. Itsasmendi Elkarteari gazteen Sukaldaritzako 2 ikastaroetarako 1.183,52 euroko diru-laguntza ematea "06-481-456-20-01 Gazteri jardueretarako dirulaguntzak" kontu-sailetik eta indarrean dagoen udal aurrekontuko A-683/07 Baimendutik ordainduko da.

Ondokoa behar du:



LEHENA.- S.C.R.D. Itsasmendi Elkarteari gazteen Sukaldaritzako 2 ikastaroetarako 1.219,00 euroko diru-laguntza ematea “06-481-456-20-01 Gazteri jardueretarako dirulaguntzak” kontu-sailetik eta indarrean dagoen udal aurrekontuko A-683/07 Baimendutik ordainduko da.

Eta aztertzeko beste gairik ezean, 14:15ean amaitu da bilkura. Bertan eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkariak, akta hau egiten dut, alkatearen oniritziarekin.